

PAISAIA-IKUSPEGIA ETA BERE LAU DIMENTSIOAK: METODO INTERPRETATZAILE KONSTRUKTIBISTA BATEN PROPOSAMENA BILBOALDEKO HIRI BAZTERREKO PAISAIA MENDITSUEN KASUAN APLIKATUA

Tesiaren egilea: Maider Uriarte Idiazabal

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Arkitektura

Tesi-zuzendariak: Marte Mujika Urteaga (UPV/EHU) eta Sören Schöbel-Rutschmann (TU Munich)

Tesiaren laburpena:

Tesi hau hiri-bazterreko paisaien izaeraren interpretazioari buruzko lan bat da. Ikerketak jorratu duen arazoa konbinaketa bat da; batetik, paisaion izaera kontzeptualizatzeko ohiko irudikapen problematikoa edota generikoa legoke, eta, bestetik, paisaia-plangintzarentzat eta paisaiak zaharberitzeko prozedurentzat paisaiok, behar bezala ezagutzen ez diren tokiak direnez gero, horrek dakarren erronka legoke. Hortaz, lanak hiri-bazterreko paisaien kudeaketarako onuragarria izan daitekeen ezaugarri kualitatiboen erabileraren bidezko paisaia-izaeraren definizioa bilatzen du. Horretarako, tesiak paisaion izaeraren definizio onargarri bat formulatzen du eta dokumentatutako gizarte-eraikuntzak interpretatzen ditu. Helburua berezko paisaia-egiturak eta paisaiaren garapenaren joerak bilatzea da, berariazko kudeaketa eta plangintza-irizpide zehatzak sortzeko onuragarriak izan daitezkeelakoan.

Ikerketari hasiera eman zitzaion hiri-bazterreko paisaien izaera ulertzeko proposamen batekin, honako hiru oinarri hauek dituen: bata, paisaia gizarteak eraiki duen geruza anitzeko kontzeptu gisa ulertzen duen teoria-ikuspegia; bigarrena, konstruktibismoa oinarri duen interpretazio-tresna baten egituraketa; azkena, hiri-bazterreko paisaien ikerketa-kasu konkretu baten erabilera. Tesi-proposamenak oinarri teoriko konstruktibistak dituen tresna bat garatzen du eta hura frogatzeko Bilboaldeko hiri-bazter menditsuko paisaia-interpretazioa jorratzen du.

Estrategia erreflexibo bat dela medio, hiru pauso nagusi ematen dituen metodo interpretatzaile bat osatu da. Hasteko, aurrekari bibliografikoen berrikuspenaren bitartez, interpretaziorako testuinguru teorikoa osatu da, eta hiri-bazterreko paisaiaren izaera teorikoa ere ezarri da. Ondoren, proposatutako interpretaziorako Paisaia-Ikuspegia tresna ikerketa-kasuan aplikatu da. Aplikazio horrek bi pauso edo eszenari jarraitu die: landa-lana eta artxibo-lana, alegia. Horrela, hastapeneko paisaia-izaeraren formulazio espekulatibo bat osatu da begi-bistakoak diren lurralde-

elementuak oinarri hartuta, eta segidan, formulazio hori sakonago aztertu da agiritegietako dokumentuak erabiliz. Hortaz, emaitzak bi motatakoak dira: lehenengo, paisaiaren ulerkerak sortzaile gisa aintzat har daitekeen berreraikuntza bat; eta bigarren, paisaiaren bilakaera ulertzeko eta hura kudeatzeko egitura ikusezinak, joerak eta aukerak identifikatu dira, nolabait lehenengo paisaia-karakterizazioaren osagarri direnak.

Tesiak proposatzen duen Paisaia-lkuspegia tresnaren ekarpena hiri-bazterreko paisaiak ulertzeko hurbilketa konstruktibista batekin egiten du. Halaber, hiri-bazterreko paisaietako eraikuntza ukigarri eta ukiezinekiko tresnak duen jarrera interpretatzaile zabal eta enpatikoak lekuan lekuko analisi-prozedura tradizionalak osatzeko ahalmena izan dezake.